



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



The Popular Aid
For Relief & Development
Build Empowered Communities



Generoan oinarritutako indarkeriaren analisia Libanoko emakume errefuxiatu palestinar eta siriarren artean -2020

Egilea:

Jaber Suliman

Aurkibidea

I. Generoan oinarritutako indarkeria	3
II. Libanon errefuxiatutako palestinarrak (PRL)	3
i. <i>Genero indarkeria PRLen artean</i>	5
III. Genero indarkeria PRSen artean	7
IV. Genero indarkeriaren ondorioak	8
V. Hezkuntza eta genero indarkeria	9
VI. PARDen esku hartzeak genero indarkeriari dagokionez.....	10
VII. Metodologia.....	11
i. <i>Datu kuantitatiboan bilketa</i>	11
ii. <i>Datu kualitatiboan bilketa</i>	13
VIII. Ondorioak	14
<i>Ondorio kualitatiboak- Foku-taldeak eta bilera komunitarioa</i>	14
A. <i>Emakumeen egoera eta bizimodua kokalekuetan</i>	15
B. <i>Emakumeen eta neska gazteen erronkak kokaleku informaletan</i>	15
C. <i>Emakumeen eta neskatuen kontrako indarkeria</i>	16
D. <i>Ezkontza goiztiarrak</i>	19
E. <i>Arau kulturalak</i>	19
F. <i>Laguntza-baliabideak indarkeriaren ostean</i>	21
G. <i>Mutiko gazteen kontrako indarkeria</i>	21
H. <i>Inpaktu ekonomikoa indarkeriarengan</i>	21

I. Generoan oinarritutako indarkeria

Europako Batzordearen definizioaren arabera, generoan oinarritutako indarkeria pertsona baten aurka zuzendutako indarkeria da, pertsona horren generoa dela-eta, edo genero jakin bateko pertsonari modu neurrigabean eragiten diena. Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa gisa ulertzen da, baita emakumeen aurkako diskriminazio-modu gisa ere, eta barne hartzen du generoan oinarritutako indarkeria ekintza oro, zeinak honakoa eragiten duen edo eragin dezakeen: emakumeenganako kalte fisikoa, kalte sexuala, kalte ekonomikoa edo kalte edo sufrimendu psikologikoa. Generoan oinarritutako indarkeriaren biktima nagusiak emakumeak eta neskatok diren arren, indarkeria mota honek barne hartu dezake ere bizikidetzaren unitate berean bizi diren gizon eta haurren aurkako indarkeria, familia eta komunitateei kalte larriak eraginez.

Populazio Gaietarako Nazio Batuen Funtsaren arabera, indarkeria ohikoa da bake zein gatazka garaietan. Munudu osoko ikerketetan hainbat termino baliatu izan dira, hala nola "emakumeen (eta neskatoen) aurkako indarkeria", "genero indarkeria" edo "generoan oinarritutako indarkeria", eta badirudi "generoan oinarritutako indarkeria" dela orokorrean gehien onartu dena¹; izan ere, hobekien islatzen du indarkeriaren erroak generoen araberako botere-harreman eta -hierarkietan daudela, eta mutikoak eta gizonak ere kaltetu ditzakeela. Genero indarkeriaren inguruko ikerketan joera dago sexu-indarkeriaz eta indarkeria fisikoaz harago doazen indarkeria-motak kontuan hartzeko, hala nola abusu psikologikoa, abusu ekonomikoa eta diskriminazioa.

II. Libanon errefuxiatutako palestinarren (PRL)

Libanon errefuxiatutako palestinarren (aurrerantzean PRL, jatorrizko ingelesezko siglengatik) Palestinako lurraldeen okupazioaren ondorioz, bertatik alde egin eta Libanon errefuxiatutako palestinarren dira. Beharbada, herrialde arabiarretan errefuxiatutako palestinarren artean, hauxe da talderik zorritzarrekiena eta miserableena. Oinarritzko giza eskubide ia guztiak ukatu dizkiete,

¹Ingelesez *generoan oinarritutako indarkeria (gender-based violence)* da gehien baliatzen dena, baina euskarazko testuan, aurrerantzean, *genero indarkeria* erabiliko da, hori baita euskaraz gehien erabiltzen dena (itzultzailearen oharra).

hainbat marjinazio motaren menpe daude —espaziala, instituzionala eta ekonomikoa—, eta marjinazio hau, maiz, bazterkeriarekin eta indarkeriarekin lotuta dago.

1948an desplazatuak izan zirenetik, PRLak behartuak izan dira etengabe etxerik gabe bizitzera eta desplazatzera, aldi baterako kanpaleku edo aterpe batetik bestera, Israelen etengabeko inbasioak eta Libanoren aurkako erasoak direla eta. Libanoko gerra zibilagatik ere (1975-1991) desplazamendua jasan behar izan zuten, baita Nahr el-Bared kanpalekuko guduagatik ere (2007); azken honen ondorioz, kanpalekua erabat suntsituta geratu zen, eta bertako biztanle guztiak desplazatuak izan ziren.

Horrez gain, palestinarren sufrimendua areagotu dute krisi ekonomiko, finantzario eta monetarioak eta Libanoko biztanleria osoari eragiten dion COVID-19aren pandemiak. Esan beharrik ere ez dago Libanoko komunitate palestinarrek pairatzen duen marjinazioak hauskorrago eta zaugarriago bihurtzen dituela krisi honen inpaktuarekiko, eta beren bizi-baldintzetan duen eraginarekiko.

UNRWArekin eta Beiruteko Unibertsitate Amerikarrarekin (AUB)² elkarlanean egindako inkesta baten arabera, kanpalekuetako PRLen %65 pobrezia-egoera orokorrean bizi dira, eta %3,1 pobrezia-egoera larrian. Gainera, PRLen %3,3k baino gutxiagok daukate Libanon lan egiteko baimena; soilik ehuneko horrek du notario publiko batek aitortutako lan-kontratua. Gainera, NBE Emakumeak-en ikerketa-txosten baten arabera³, PRLen populazioak %23ko langabezia tasa du gizonen kasuan (2010etik %8tik gorako igoera esanguratsua), eta %31koa emakumeen kasuan.

Datu horiek aztertuta, eta kontuan hartuta, batetik, joera ekonomikoen analisia, eta bestetik, krisiak komunitate marjinatuetan dituen ondorio neurrigabeak, 2015az geroztik izugarri igo dira palestinarren pobrezia- eta langabezia-tasak.

²Jad Chabaan et al, “Survey on the Socio-economic Status of Palestine Refugees in Lebanon (2016)”. Inkesta hau UNRWAk eta AUBk zuzendu zuten, eta 2015ean burutu zen.

³UN WOMEN. “Addressing Gender amongst Syrian Refugees in Lebanon”, Research Brief (2019ko iraila).

i. ***Genero indarkeria PRLen artean***

UNRWA/AUBren inkestaren arabera, PRLen populazio osoaren %51-52 emakumeak dira, eta, aldiz, etxeen bosten batean soilik (%21,5) dira emakumeak etxeko buruak. Gainera, inkestaren emaitzen arabera, gizonen %26,8k eta emakumeen %25,6k —PRLen biztanleria osoaren %28,5en baliokidea—, 14 urte edo gutxiago dituzte, zeinak adierazten duen biztanleria gaztea dela. PRLen komunitatearen egitura demografikoari buruzko datu horiek erakusten dute komunitateak zaurgarritasun handia duela genero indarkeriarekiko.

Hori zela eta, Najdeh elkarteak⁴ 301 etxeri zuzendutako ikerketa bat egin zuen, emakume PRLen artean etxeko indarkeriak duen prebalentzia ebaluatzeko. Ikerketaren arabera, emakumeen heren batek bikote barruko indarkeria pairatzen zuen. Edonola ere, agerian geratu zen komunitateak ez zuela hain erraz onartzen eta justifikatzen gizonen beren emazteak jo ditzaketela; izan ere, inkestaren parte-hartzaileetako asko bat zetozen "ezerk ez du justifikatzen emakumeak jotzea" esaldiarekin.

Haurdun zeuden emakume errefuxiatuengan ere ebaluatu zen etxeko indarkeria. Ikerlariak 349 emakumeren datuak bildu zituzten, eta emakumeen %69k gutxienez indarkeria fisikoa, emozionala edo sexuala jasan zutela ikusi zuten. Gainera, emakumeen %40k haurdunaldian zehar jasan zuten indarkeria⁵. Beste ikerketa batean, 349 parte-hartzaileetatik %27k salatu zuten sexu-harreman behartuak izan zituztela haurdunaldian⁶. Gai berari buruzko beste azterketa batek haurdunaldian zehar indarkeriarekin lotutako faktoreak aztertu zituen. Emaitzek erakutsi zuten etxeko indarkeriari lotutako faktoreak zirela, besteak beste, hezkuntza-maila, haurdun dagoen

4Aziza Khalidi, Fatima Chahine . " Knowledge, Attitudes and Practices of Domestic Violence Among Refugee Communities in Lebanon", Association Najdeh (2004).

5Nadwa Hammoury , Marwan Khawaja. "Screening for Domestic Violence during Pregnancy in an Antenatal Clinic in Lebanon", European Journal of Public Health, 17. bol., 6. zk. (2007ko abendua).

6Marwan Khawaja, Nadwa Hammoury." Coerced Sexual Intercourse with Marriage: A Clinic Based Study of Pregnant Palestinian Refugees in Lebanon", Journal of Midwifery & Women Health, 53. bol., 2. zk. (2008ko martxoa-apirila).

emakumearen adina, senarrari edo etxeko beste norbaiti dioten beldurra, eta nahi gabeko haurdunaldia izatea.⁷

Hainbat saio egin ziren genero indarkeria lantzeko eta PRLen komunitatea kontzientziatzeko. Libanon, UNRWAK laguntza komunitarioko taldeak sortu zituen Libanon errefuxiatutako palestinarrentzako, baita Siriako errefuxiatu palestinarrentzako ere (aurrerantzean PRS, jatorrizko ingelesezko siglengatik) emakumeen interesak ordezkatzeko foro gisa, eta genero indarkeriarekiko pertsona zaurgarrienak identifikatzen eta babesten laguntzeko.

Bestalde, Global Fund for Women funtsa inplizituki engaiatu da Libanoko palestinar errefuxiatuen komunitateak genero indarkeriarekin dituen arazoekin, emakume eta haur errefuxiatuekin lan egiten duten zenbait GKE 'bazkide' palestinarren bidez, hala nola "Tadamon" (Arabic for Solidarity) eta "Palestinian Women Humanitarian Organization".

Gainera, badaude gai honetatan aspalditik konprometituako palestinar GKE aitzindari asko, besteak beste: PARD, Najdeh Association eta Beit Atfal Al-Sumud, arlo honetan rol garrantzitsua jokatzen dutenak.

2009. urtean, UNRWAK sektore anitzeko hurbilpen bat onartu zuen, genero indarkeriaren gaiari heltzeko. Ondorioz, 2015ean, UNRWAK txosten bat aurkeztu zuen⁸ 2010etik 2014ra bitartean errefuxiatu palestinarren komunitateetan genero indarkeriaren inguruan izandako esperientziei buruz.

Txosten honen arabera, 2014an %12 handitu ziren sexu-indarkeria salaketak, eta %4 bortxaketa salaketak. Era berean, egitasmoan dokumentatutako kasuen %80k etxeko indarkeria esperientziak adierazi zituen, eta erasotzaileen %68 gurasoak (%22) ala senargaia (%46a) ziren.

Horrez gain, eta 2014 bukaeran Ekialde Hurbileko eskualdeetara —Libano barne— egindako bisita sakon baten ondorioz, Global Fund Women-ek txosten bat aurkeztu zuten: "Emakumeak

⁷Nadwa Hammoury, Marwan Khawaja, Z. Mahfoud, R.A Afifi, H. Madi. "Domestic Violence against Women during Pregnancy: The Case of Palestinian Refugees Attending Antenatal Clinics in Lebanon", *Journal of Women Health*, 18. bol., 3. zk. (2009ko martxoa).

⁸UNRWA Gender Section, "UNRWA Experience in GBV Programming: lessons learned from the five first years", (2015).

eta errefuxiatuen krisia: Egoeraren eguneraketa Libanotik”⁹. Txostenean adierazitakoaren arabera, kanpalekuetan arrisku handia dago emakumeen aurkako indarkeria pairatzeko.

Horrez gain, frogatu zen komunitatean oso nabarmena zela emakumeen eta haurren aurkako indarkeria. Txostenaren arabera, kaleko jazarpena eta bortxaketak kanpalekuko arazoan artean zeuden. Horrez gain, emakumeek etxeko indarkeria salatu zuten ere. Txostenak aipatzen zuen beste kontu bat, halaber, haurren arteko behartutako ezkontzak ziren. Arazo hori areagotzen duen faktorea arau komunitarioak dira, halako jokabideak sustatzen dituztenak. Esate baterako, etxeko indarkeria aski erromantizatzen edo arrazionalizatzen da. Horrez gain, lehenik eta behin, haurren arteko ezkontzak onura ekonomiko eta sozialetan hartzen dituzte familiek. Ez da biolentzia gisa ulertzen; aitzitik, neskatoaren eta familiaren ohorea babesten dituela ulertzen da, eta familiaren baliabide mugatuak ekonomikoki arintzeko aukera gisa ere. Are gehiago, emazteek eurek uste zuten hobe zela gizonen beren amorrua emakumeen edo familiaren aurka askatzea, jendartearen aurka kanporatzea baino. Egoeraren beste errefortzu sozial bat da emakumeek ez dituztela beren eskubideak ezagutzen, eta ez dakitela zer den benetako indarkeria. Horrez gain tabu kulturalak ere badaude, eta horien ondorioz, emakumeek, nahiz eta indarkeria jasan, zailtasunak dituzte hari buruz hitz egiteko.¹⁰

III. Genero indarkeria PRSen artean

Siriako palestinar errefuxiatuak (PRS), Libanora joandakoak (gaur egun 28.000 inguru), bizimodu prekario eta marjinatu batera bultzatuak izan dira, beren egoera legal lausoaren eta bizigaiak ez izatearen ondorioz, baita bizimodu ezegonkorra dutelako ere. Hain zuzen ere, kaltetuenak izan dira Libanoko krisiaren eta haren inpaktu suntsitzailearen ondorioz. Babes juridiko eta sozial eraginkorrik ez dutenez, UNRWArekiko mendekotasun handia dute beren oinarritzko beharrak asetzeko.

UNRWA/AUBek egindako inkestaren arabera, Libanon dauden PRSen %89 pobrezia-egoeran bizi dira; haietatik %9 muturreko pobrezia-egoeran daude, eta %94,5ek, berriz, ez dute

⁹Global Fund for Women Women and the Refugee Crisis: A news Update from Lebanon (2015).

¹⁰Ibid

elikadura-segurtasunik. UNRWArean babes unitatearen azken txostenen arabera, PRS gazteen %93,4 pobrezian bizi dira; %85ek, berriz, trauma osteko estresaren nahasmendua pairatzen dute; eta etxeen %85entzako, berriz, diru-sarrera nagusia UNRWArean laguntza da.

NBE Emakumeak-en txostenaren arabera, Libanon bizi diren PRSen %52 emakumeak dira, 3 etxetik batean emakumeak dira etxeko buruak, eta PRS emakume gazteen %13 ezkontuta daude. Langabezia-tasa altuagoa da PRS emakumeen artean (%86), PRS gizonen aldean baino (%48,5).

Txosten beraren arabera, gizonezkoak buru diren etxeetako emakumeek indarkeria fisikoaren inguruko kezka daukate. Bikote barruko indarkeria da indarkeria-mota nagusia, etxeetan emazteek jasaten dutena, alegia.

IV. Genero indarkeriaren ondorioak

2015ean egindako txostenean, genero indarkeriak biktimengan izan ditzakeen ondorio ugariak aipatzen ditu UNRWak. Genero indarkeriaren biktimek hainbat ondorio jasan ohi dituzte, hainbat mailatan. Elkarren artean lotuta dauden mailak dira: maila psikologikoa, fisikoa, soziala, familiarra eta ekonomikoa, hain zuzen. Inpaktu psikologikoei nahasmendu espektro zabala hartzen dute, baita hainbat larritasun-maila ere, hala nola trauma osteko estresaren nahasmendua (TOEN), antsietate-nahasmenduak (antsietatea, larritasun-krisiak, paranoia), depresioa, elikadura-nahasmenduak eta beste asko, pentsamendu eta jokabide suizidak garatzea barne. Genero indarkeriak biktimengan utz ditzakeen inpaktu fisikoei dagokienez, aipatzekoak dira osatu daitezkeen lesio moderatuak (ebakiak, ubeldurak edo erredurak, esaterako), eragozpen eta desgaitasun funtzional larriak, arazo sexualak (SKGak, nahi gabeko haurdunaldiak, berezko abortuak, etab.), eta are heriotza ere. Bestelako inpaktu sozial, ekonomiko eta familiarrak, berriz, honela labur ditzakegu: inpaktu sozialei dagokienez, delinkuentzia-tasa handitzea; ekonomikoei dagokienez, bizirik atera direnentzako finantza-egonkortasunerako aukerak murriztea; eta familiari lotutako inpaktuei dagokienez, dibortzio-tasa handiagoak eta seme-alaben aurkako indarkeria egoteko probabilitate handiagoa. Inpaktu horiek hain daude elkarlotuak, non, biktimei eragiteaz gain, komunitateari ere eragiten dioten.

Aipatzekoa da genero indarkeriak ez diola soilik talde bakar bati (hau da, emakumeei) eragiten; haurrak ere izan daitezke genero indarkeriaren biktima, edo hari bizirik iraun, eta horren inpaktuak jasan ditzakete, hala nola osasun eskasa, loaren nahasmendua, trauma, oldarkortasuna, eta beste hainbat inpaktu emozional eta psikologikoak eta jokabideari lotutakoak.

V. Hezkuntza eta genero indarkeria

Libanoko emakume errefuxiatuen egoerari buruzko txostenean —PRLen zein Libanon dauden PRSen ingurukoa—, emakume errefuxiatuen eta haurren egoera larriari buruzko ikerketa batean¹¹, PRL eta Libanon dauden PRS emakumeentzat erronka diren hainbat gai aztertzen dira, zeintzuek zaurgarriago egiten dituzten genero indarkeriarekiko.

Hezkuntzak eragin handia du genero indarkeria murrizteari dagokionez. Izan ere, eskolak ingurune egokiak izan daitezke genero indarkeria eta haren askotariko formak ikasgelan edo ikasleen artean lantzeko. Horrek, gerora, emakumeei bereziki, aukera emango die hobeto ulertzeko zer gertakari etiketatu behar duten genero indarkeria gisa, ezkontza goiztiarra ulertu eta eragozteko, eta baita haien osasunaren inguruko kontu asko ulertzeko ere.

Horietako bat da emakumeek jasotzen duten hezkuntzaren maila eta kalitatea. Emakume errefuxiatu askok ez dute hezkuntza egokia jasotzen, gerratik ihes egitearen ondorioz PRSen kasuan, edo hezkuntza baliabide eskasengatik PRLen kasuan. Aztertutako bibliografiaren arabera, emakumeen hezkuntza-maila baxua genero indarkeriarekin lotuta dago. Zehatzago, hezkuntza egokia jaso ez zuten emakumeak, hau da, eskolatu gabekoak edo nahikoa ikasi gabekoak, ez dira gai beren bizitzaren eta etorkizunaren inguruan erabakiak hartzeko. Halaber, zaurgarriagoak izaten dira ezkontza goiztiarrei dagokienez, eta beren osasuna zaintzeaz gutxiago kezkatzen dira ezkondu ostean.

Gainera, txostenak frogatzen du genero indarkeriak gora egiten duela errefuxiatu komunitateetan, bereziki bikote barruko indarkeria, gerra garaian aldatu ohi diren genero dinamika eta arauak

¹¹Charles, Lorraine and Demman, Kate (2013). "Syrian and Palestinian Syrian Refugees in Lebanon: The Plight of Women and Children", *Journal of International Women's Studies*, 14(5) 96-111.

orekatzeko modu gisa baliatzen dutelako gizonen. Genero dinamika horien ardatza zera da: gizonen jendartean boterea dutelako, gailentzen direlako, eta erabakiak hartzen dituztenak direlako ustea. Horrek argi azaltzen du gerrak areagotu egiten duela emakumeen zaugarritasuna genero indarkeriarekiko.¹²

VI. PARDen esku hartzeak genero indarkeriari dagokionez

Errefuxiatu-komunitate palestinarren genero arazoekiko interesa sakonki integratzen da PARDen bisioan eta misioan, beren lanaren hasiera-hasieratik. PARDen bisioan honakoa aldarrikatze du: "Genero justizia eta talde zaugarrien eskubideak sustatzea, batez ere palestinarren kokaleku informaletan (kanpalekueetatik kanpo) gizarte, osasun eta ingurumen zerbitzuak eskaintzeko eta emakumeek, gazteek eta hurrek beren eskubideak gauzatzeko". Aldi berean, PARDen bisioak genero justizian oinarritzen da, eta azpimarratzen du "emakume palestinarrek eskubidea dutela komunitatean modu eraginkorrean eta parekidean parte hartzeko".

Praktikan, PARDen programak eskubideetan oinarritzen dira eta beharrei erantzuten diete. Ondorioz, Solidaridad Internacionalekin elkarlanean, PARDek anbizio handiko programa bat abiatu du 2020an: "Libanoko hegoaldeko errefuxiatuei zuzendutako arreta medikoa eta psikologikoa". Lau elementuk osatzen dute programa. Lehenbizikoa klinika mugikor zein finkoak dira, non ginekologoek kokalekueetako emakumeentzako doako zerbitzuak eskaintzen dituzten. Bigarrena minbiziari buruzko kontzientziario kanpainak dira; hala, bularreko eta umetoki-lepoko minbizia garaiz detektatzeko, doako zitologia baginalak eta mamografiak eskaintzen dira. Hirugarrenik jarraipen psikologikoa eskaintzen da, emakumeen artean genero indarkeria kasuen jarraipena egitea barne hartuta, eta kontsulta eta erreferentziazko laguntza eskaintzen dira. Laugarrena, azkenik, osasun erreproduktiboari eta genero indarkeriari buruzko kontzientzia piztean datza. PARDek eskaintutako doako zerbitzuei esker, emakume askok osasun arreta publikoa jaso ahal izan dute, modu erraz eta erosoan.

¹²Ibid

Kokalekuetan emakumeei eskainitako zerbitzuez gain, eta zerbitzu horien onuradunen oharretan oinarrituta, PARDeK ikerketa bat burutu zuen, zeinak antolakundearen operazio-eremuetan genero indarkeriak zituen alde anitzak ebaluatzen zituen. Azterlanaren helburua zera zen, genero indarkeria kontzeptuaren jatorriaren ulermen sakona garatzea kokalekuetako komunitateetan, genero indarkeria mota eta pertzepzio nagusien alderdiei buruz.

VII. Metodologia

PRL eta PRS komunitateetan genero indarkeriaren inguruko ulermena hobetzeko xedearekin, eta datu-bilketa egoki eta bizkorrena bermatzeko, bi datu-bilketa mota orokor baliatu ziren: kuantitatiboa eta kualitatiboa. Bi hurbilketei esker, informazioa modu kolektiboan bildu ahal izan zen, baita parte-hartzaileentzako modurik egokienean ere. Hurbilketa kuantitatiboari dagokionez, galdetegi bat baliatu zen, barne hartzen zituena genero indarkeriari lotutako intzidentziei eta jendartean zeuden emakumeekiko eta generoarekiko jarrerari buruzko itemak. Inkestaz gain, eta egunerokoan kokaleku informaletan bizi ziren pertsonen ikuspegia bermatzeko, datu kualitatiboak ere bildu ziren kokalekuetako emakumeekin adostutako foku-taldean bidez.

i. *Datu kuantitatiboan bilketa*

Kokaleku informaletako emakumeen eta genero indarkeriaren egoera ebaluatzeko galdetegi bat sortu zen. Ikerketa-gaia eremu jakinei oso lotuta zegoenez, inkesta propioa garaut zuen ikerketa-taldeak, komunitatearen eta kokalekuen antolamenduaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Inkestak genero indarkeriaren hainbat alderdi aztertzen zituen, hainbat hurbilpen baliatuta. Hiru atalez osatuta zegoen. Lehen atalak oinarritzko datu demografikoak aztertzen ditu, garrantzitsutzat jotzen zirenak eta ikertzeko adierazgarriak zirenak. Datu hauek biltzen ditu: arraza, adina, nazionalitatea, ezkontza-estatusa eta hezkuntza-maila. Datu demografiko horiek ebaluatzea lagungarria da parte-hartzaileak nondik datozen ulertzeko. Halaber, lagungarria da zenbait azpi-faktore ulertzeko, beren sinesmenak edo erabaki jakinak baldintzatu ditzaketenak.

Inkestaren bigarren atalaren helburua zera zen, aztertzea parte-hartzaileak zenbateraino egokitzen ziren genero indarkeria sustatzen duten arau sozialetara. Lehenik, genero indarkeria sustatzen

duen arau kulturalak zehaztu ziren, eta gero, horiek ebaluatzeko itemak garatu ziren, oinarri hartuta komunitateko pertsonen praktikak eta bizimoduak. Honako arau hauek ebaluatu ziren: mutikoak neskatoen gainetik gailentzea, gizonen nagusitasuna komunitatean, gizonen ohorea defendatzen duten emakumeak, indarkeria baliatzea onartutako diziplina metodo gisa, emaztearengan jartzea ezkon-bizitza zaintzeko erantzukizuna eta senarrak ezkondu ostean sexu-harremanak izateko duen eskubidea.

Kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsu bat inkestaren luzera izan zen; hortaz, aipatu arauetako bakoitza, gehienez bi item baliatuta ebaluatu zen, guztira 8 item osatuz. Mutikoek neskatoekiko duten nagusitasuna ebaluatzeko, honako item hau erabili zen: "Neskatoek potentzial sozial eta ekonomiko handia izan dezakete". Gizonak oro har gizartean duen nagusitasuna ebaluatzeko, honako itemak erabili ziren: "Gizonek emakumeen gaineko botereari eusteko eskubidea dute" eta "Gizonek emakumeen jokabidea zaindu behar dute". Era berean, emakumeek gizonen ohorea defendatu behar dutela dioen araua ebaluatzeko, honako item hau baliatu zen: "Familia baten ohorea ez dago lotuta neskatoaren jokabidearekin". Indarkeria onartutako diziplina-metodo gisa erabiltzen dela ebaluatzeko, honako item hau baliatu zen: "Jotzea modu onargarria da gurasoek beren alabak diziplinatzeko" eta "Ez da onargarria, inola ere ez, gizon batek bere emaztea jotzea". Izan ere, ezkon-bizitza zaintzeko erantzukizuna soilik emaztearengan uzten zenez, arau hori item honen bidez ebaluatu zen: "Emakume baten erantzukizuna da ezkon-bizitzak funtziona dezan bermatzea". Azkenik, hurbilpen bera baliatu zen ezkondu ostean sexu-harremanak izateko senarraren eskubideari zegokionez; hala, arau hori ere zuzenean ebaluatu zen honako item honen bidez: "Sexua gizonaren eskubidea da ezkontzan emaztearen borondatea kontuan hartu gabe".

Atal honen puntuazioa ateratzeko, parte-hartzaileei eskatu zitzaizen 8 itemen inguruko adostasuna ala desadostasuna 4 puntuko eskala baten bidez ebaluatzeko. Zenbat eta puntuazio altuagoa eman, orduan eta adostasun handiagoa islatzen du arauarekiko. Hori betetzen zela bermatzeko, hiru itemen kasuan ("Neskatoek potentzial sozial eta ekonomiko handia izan dezakete", "Ez da onargarria, inola ere ez, gizon batek bere emaztea jotzea" eta "Familia baten ohorea ez dago

lotuta neskatoaren jokabidearekin") alderantzizkoak ziren, hau da, haiekiko adostasunak arauetikiko adostasun txikiagoa islatzen zuen.

Inkestaren hirugarren zatia dagokionez, genero indarkeriak komunitatean duen nagusitasun orokorraren inguruko galderak biltzen zituen. Era berean, genero indarkeriaren gertakari espezifikoaren presentziari ere heltzen zion, baita jendeak genero indarkeria nola ulertzen zuen, eta genero indarkeriarekin —gertatu aurretik nahiz ondoren— lotu ohi diren zirkunstantziak ere. Atal honetan honako galderak zeuden, besteak beste: "Zure ustez, hurrengoan artean zer da *emakumeen aurkako indarkeria*" eta "Etxean, guztiek uste dute emakumeen aurkako indarkeria desegokia dela?", modu horretan sakontasunez ulertzeko nola hautematen eta ulertzen duten genero indarkeria kokalekuetako komunitateko pertsonak.

Datuak jasotzeko, komunitatean bizi diren emakumeen artean banatu zen inkesta.

ii. *Datu kualitatiboaren bilketa*

Banatutako inkestez eta eskuratutako datu kuantitatiboaz gain, datu-bilketa kualitatibo bat beharrezkoa zen genero indarkeriari lotutako gertaerak eta kokalekuetako pertzepzioa zehatzago ulertzeko. Horrez gain, komunitateko emakumeen testigantzek eta istorioek asko aberasten zituzten datuak. Horretarako, foku-taldeak programatu ziren kokaleku informaletan bizi ziren PRL eta PRS emakumeekin. Foku-taldeen gai anitzak landu zituzten galdera ezberdinen bidez.

Foku-taldeen helburua honakoa aztertzea zen: kokaleku informaleko komunitateen bizimodua, arrisku-guneak zehaztea, emakume eta neskatuei eragiten dieten indarkeria motak, eta indarkeria pairatu osteko ondorioak. Galdera asko ziren, arrisku-guneei lotutako kontuei eta genero indarkeriari lotutako intzidentziei buruzkoak. Horrez gain, foku-taldeetan honako gaiei buruzko galderak ere bazeuden: indarkeriaren ondorioak, genero indarkeria bizi ostean bizirik ateratakoek laguntza jasotzeko aukerak, eta komunitateak, oro har, gertakari horiei buruz duen pertzepzioa. Foku-taldeak 8 kokaleku informaletan egin ziren: Eiteneye, Jal El Bahr, Jim Jim, Kfarbadda, Qasmeyye, Sekke, Shabriha eta Wasta. Foku-taldeak ordubete eta ordu eta erdi artean luzatu ziren, eta hainbat emakumerekin batera egin ziren. Foku-taldeen gain, soilik emakumeei zuzendutako bilera komunitario bat egin zen Maachouk-en, non foku-taldeetan landutako gai

berberak eztabaidatu ziren. Inkesta gizonei ere betetzeko eskatu zitzaaien arren, soilik emakumeak gonbidatzeko arrazoia honakoa zen: emakumeei hitz egiteko orduan intimitatea eta erosotasuna bermatzea. Horrez gain, emakumeak bakarrik gonbidatu zituzten, komunitate honetan, ohikoan, emakumeak direlako genero indarkeriaren biktimak, eta gizonen presentziak emakumeengan eragin zezakeen edozein intimidazio ezabatzeko.

Saio guztietan bideratzaile batek zuzendu zuen foku-taldea eta emakumeei inkesta betetzen lagundu zien. Beste pertsona bat aktalari lanetan aritu zen, foku-taldeetan eta bilera komunitarioan aipatutakoari buruzko oharra jasotzeko. Jendearen parte-hartzea borondatezkoa zen erabat, eta ez zen inolako pizgarririk ematen parte hartzearen truke. Datu guztiak arabieraz bildu eta ingelesera itzuli ziren. Bildutako datuak konfidentzialak eta anonimoak dira, eta datuak bildu eta aztertu dituzten pertsonak soilik izan dituzte eskuragarri. Parte-hartzaile guztien adostasun informatua jaso zen, bai inkesta bete aurretik baita foku-taldearen dinamika abiatu aurretik ere.

VIII. Ondorioak

Datu-bilketa deskribatu bezala hasi zen, eta honako emaitza hauek eman zituen.

Ondorio kualitatiboak- Foku-taldeak eta bilera komunitarioa

Foku-taldeak honako 8 kokalekuetan gauzatu ziren: Eiteneye, Jal El Bahr, Jim Jim, Kfarbadda, Qasmeyye, Sekke, Shabriha, eta Wasta. Guztira 87 pertsonak parte hartu zuten foku-taldeetan, guztiak emakumeak, gehi Maashouk-eko bilera komunitarioan parte hartu zuten 38 emakume. Foku-taldeetan parte hartu zuten emakumeen adin-tartea 20-65 urte bitartekoa zen. Foku-taldeetan parte hartu zuten emakumeei taldearen arabera egin zitzaizkien galderak, elkarrizketaren norabidearen testuingurua kontuan hartuta.

Eiteneye-ko foku-taldearen kasuan 9 parte-hartzaile egon ziren, 20 eta 50 urte artekoak. Jal El Baher-eko foku-taldeari dagokionez, 35 eta 65 urte arteko 13 emakumek parte hartu zuten. Jim Jim-eko kokalekuan 10 emakumek parte hartu zuten, 30 eta 60 urte bitartekoak. Kfarbadda-ko kokaleku informalean, emakumeen adin-tartea beste kokalekuetan baino altuagoa izan zen; 7 parte-hartzaileek 40 eta 65 urte bitartean zituzten. Qasmeyye-n 15 emakume egon ziren, 20 eta

50 urte bitartekoak. Sekke-ko kokalekuan, foku-taldearen lagina 12 emakumek osatu zuten, guztiek 20 eta 60 urte bitartean zituztelarik. Shabriha-ko kokalekuari dagokionez, 25-65 urte bitarteko 13 emakume egon ziren. Eta, azkenik, Wasta-ko kokalekuko foku-taldean 8 emakumek parte hartu zuten, 25 eta 50 urte bitartekoak denak. Maashouk-eko bilerari dagokionez, 38 emakumek parte hartu zuten, 16 eta 70 urte bitartekoak. Kokaleku guztietan, emakumeek genero indarkeriaren inguruan zituzten ezagutzak eta jarrerak partekatu zituzten. Kokalekuek, elkarren artean alderatuta, emaitza koherenteak eta logikoak erakusten zituzten.

A. *Emakumeen egoera eta bizimodua kokalekuetan*

Foku-taldean 8 bileretan ohikoa izan zen jasotzea emakumeek ia egun guztiak etxean ematen zituztela, gehienak lanbiderik gabeko etxekoandreak baitziren. Beren eguneroko jardueren ardatza etxeko lanak ziren, hala nola sukalde eta garbiketa lanak. Halaber, emakumeek gehien aipatzen zuten zeregina haurrak zaintzea zen, eta oro har etxeko lanak. Foku-taldeetan jasotakoaren arabera, kokalekuetako emakumeen artean oso gutxik zuten lanbide bat, eta lanbidea zutenen kasuan, nekazaritzan edo inguruko industrialde batean zen, kokapenaren arabera. Emakume gutxiengoek eduki zituzten beste lan batzuk, besteak beste, etxeen garbiketa edo auzokideei etxeko tresnak saltzea ziren. Oro har, kokalekuetan, soldatapeko lana zuten emakumeen zenbatekoa oso apala zen, gehienak etxekoandreak baitziren. Halaber, aipatu beharra dago COVID-19aren pandemiak eragina izan duela kokalekuetako emakumeen bizitzetan, etxean denbora gehiago pasatu behar izan baitzuten.

Komunitateko neskatoei dagokienez, oro har eskolara joan ohi zirela jaso zen. Orain, eta pandemiaren ondorioz, neska gazteak denbora etxean pasatzen ari dira, eta ikasketak online egiten ari dira. Lanari dagokienez, jaso zen ohikoa zela zenbait neskatok supermerkatuetan, janari-dendetan, apaindegietan, industrian, edo joskintzan edo garbiketetan lan egitea. Aipatzekoa da ohikoagoa dela neskatok lan bat edukitzea, emakume ezkonduak baino.

B. *Emakumeen eta neska gazteen erronkak kokaleku informaletan*

Emakume eta neskatoen erronkei buruz parte-hartzaileek emandako erantzunak, gehienetan, antzekoak ziren, baina ezberdinak ziren intzidentzien zehaztasunei eta deskribatutako kokalekuei

zegokienean, eremuaren arabera. Gehiago sakonduz, emakumeei galdetu zitzaien ea kokalekuetako neskatoek eta emakumeek erronka berezirik zuten, batez ere eremuan zehar mugitzen zirenean. Kokaleku guztietan erantzuna zen neskek eta emakumeek, batetik bestera ibiltzean, hainbat erronka eta beldur zituztela; hala ere, kokalekuaren arabera, leku zehatz batzuk aldatu egiten ziren. Kokaleku guztietan jaso zen emakumeentzat arazoa zela batetik bestera mugitzea. "Garraioaren arazoa" deitzen zioten. Etengabeko kezka zen jazarriak izatea edo hitzez zein fisikoki erasotuak izatea. Sekke-ko kokalekuan emakume batek taxi gidarien sexu-erasoak aipatu zituen, zeinetan bidaiariak sexualki berotzen saiatzen ziren gidariak. Lapurreta eta bahiketen inguruan ere kezka adierazi zuten emakumeek. Kokaleku guztietan aipatu zen lapurretez edo bahiketez beldur zirela, batez ere egoera ekonomiko kaskarreko inguruetatik ibiltzean. Jal El Baher-eko kokaleku informalean, besteak beste, erailak izateko beldurra ere aipatu zen. Nabarmendutako beste kezka handi bat, halaber, gauez kaletik ibiltzea zen. Neskatoek gauez kalera ateratzeari beldur handia zioten, oso nabarmena zen. Maashouk-eko bilera komunitarioan, emakumeek bat zetozen esatean Maashouk ez dela leku segurua gauez ibiltzeko. Beste beldur bat ere aipatu zuten: gauez kalean noraezean dabiltzan gizon mozkorrek emakumeei, neskatoei eta baita mutikoei ere eraso diezaiekete.

Emakume eta neskatoei gune bereziki arriskutsuagoi buruz galdetu zietenean, aipatu eremuak kokalekuen araberrakoak ziren. Zehazki, hiri-eremuetako (hala nola Sekke eta Wasta) kokaleku informaletan, kale estu edo abandonatuak aipatzen zituzten, baita etxetik eskolara joateko bide arriskutsuak ere. Hala ere, landa-eremukoak diren Eiteneye eta Jim Jim-eko kokalekuetan, zelaiak eta zuhaiztiak aipatu zituzten arrisku gune gisa, erasoak pairatzeko arrisku handiagoa baitzegoen bertan. Era berean, Jal El Baher-eko kokalekuan, geografikoki hondartzatik gertu kokatzen denez (Jal El Baher-ek, arabieraz, "itsasaldea" esan nahi du), baita errepide nagusitik gertu ere, hondartza bera gune arriskutsua zela adierazi zuten, erasotzaileek neskatoak hondartzara eraman eta bistatik kanpo geratzen baitziren.

C. Emakumeen eta neskatoen kontrako indarkeria

Emakumeek indarkeria mota asko salatu zituzten foku-taldeetan. Neurri handi batean, foku-taldeak egin ziren 8 kokalekuetan antzeko indarkeria-motak eta -intzidentziak aipatu zituzten.

1. *Sexu-indarkeria*

Parte-hartzaileek indarkeria-mota asko aipatu zituzten, baina sexu-indarkeria zen gehien beldurtzen zituena. Parte-hartzaileek esan zuten emakumeek eta neska gazteek sexu-indarkeria jasateko arrisku handia dutela, hitzezkoa zein fisikoa izan. Gainera, aipatzen zuten neska gazteek emakumeek baino arrisku handiagoa zutela, aukera gehiago zutelako etxetik irten eta lanera, supermerkatu edo eskolara joateko. Wasta-ko kokaleku informalean, eta "zerbait deserosoa" bezala deskribatuko luketen hitzezko sexu-jazarpenari buruz galdetzean, parte-hartzaileek adierazi zuten halako kasuetan nahiago zutela isilik egon eta erasotzaileei ezer ez esan. Lotsaren eta presio sozialaren beldur direla azaldu zuten, "jendeak hitz egin dezakeelako" eta horrek neskaren ospea hondatuko lukeelako. Sexu-jazarpen fisikoari dagokionez, Jim Jim-eko kokalekuko foku-taldean, isilik egoteagatik izandako jazarpen egoera bat aipatu zuten. Zehazki, emakumeak adierazi zuen bazekiela lanera bidean norbait atzetik zuela aspalditik, baina zerbait esateak beldur ematen ziola. Egun batean, atzetik zebilkion gizon bera emakumea fisikoki erasotzen saiatu zen, hura lantokiko atea irekitzen ari zela. Emakumeak kontatu zuen, zorionez, bere burua defendatzea lortu zuela eta alde egin ahal izan zuela. Kfarbadda-ko foku-taldean beste sexu-eraso bat aipatu zen baita ere. Gertakari pertsonal bat zen, parte-hartzaile baten alabari gertatutakoa, "lotsa" sentimendua saihesteko talde-saioa amaitu ondoren borondatez aipatu zuena. Bere alaba gaztearen lagun baten aitak alaba bortxatu zuen, lagunaren etxean jolasten ari zela. Ama, gainera, errudun sentitzen zen, kontatzen zuen alabaren ospea eta etorkizuna hondatuta zeudela, oraindik ere erruduna libre zegoelako, gertatutakoa ez baitzuten salatu. Beste bortxaketa baten kontakizuna jaso zen Shabriha-ko kokalekuan; hiru gizonek neskato bat bortxatu zuten taxi terminalean zegoela.

Horrelako gertakariak ez ziren harritzekoak foku-taldeetako emakumeentzat, kokaleku informalean ohikoak izaten baitziren. Beraz, aipatu bezala, sexu-indarkeria eta -jazarpena ziren gehien aipatutako indarkeria motak, baita neska gazteak eta emakumeak gehien beldurtzen zituztenak ere.

2. *Etxeko indarkeria*

Beharbada, gehien aipatutako indarkeria mota, baita gehien errepikatzen dena ere, etxeko indarkeria da, hainbat forma eta moten bidez. Foku-talde guztiek aipatzen zituzten etxeko indarkeriari lotutako gertakariak, bai gurasoek seme-alabei gauzatutakoa, bai senarrek emazteei gauzatutakoa ere. Seme-alabei tratu txar fisikoak egiten zizkieten gurasoen kasu asko aipatu ziren. Hain zuzen ere, foku-talde batean, gurasoek seme-alabak fisikoki jotzea ez zen desegokitzat hartzen, diziplina-metodo onargarritzat baizik.

Bikote barruko indarkeriari dagokionez, Kfarbadda-ko foku-taldeko parte-hartzaile baten hitzetan, "***hau benetako hondamena da***". Indarkeria mota hau oso orokorra omen da etxe askotan, kokaleku guztietan aipatutakoaren arabera. Hala jaso zen oso maiz, eta hari buruzko gertakari eta lekukotasun ugari aipatu ziren. Foku-talde berean, emakume batek hala deskribatu zuen auzokideari gertatutakoa: "***Gizon bat ikusi nuen kalean emazteari 'ilea kentzen' eta etxera joateko esaten. Gogoz negar egin nuen hori ikusi nuenean***". Erabilitako esamoldea metafora bat da, gizonak emaztea zein bortizki jotzen zuen adierazteko. Jal El Baher-eko foku-taldean intzidentzia gehiago aipatu ziren. Esaterako, parte-hartzaile batek aipatu zuen auzokidea sistematikoki abusatzen zuela senarrak: "***Beti entzuten dugu senarra oihuka eta oihuka***". Senarrak oso gogor jipoitu zuen emakume baten gertakaria kontatu zuen foku-talde bereko beste parte-hartzaile batek: "***16 egun eman zituen komunean itxita. Komuneko atean ematen zion bularra alaba txikiari***", erantsi zuen. Maashouk-eko kokaleku informalean, bilera komunitarioan, parte-hartzaile batek etxeko indarkeria esperientzia partekatu zuen: "***Animalia bat bezala tratatzen nau, gaur nire lagunaren etxean igaro dut gaua. Umiliatu egiten nau, beti saiatzen naiz geldiarazten, baina gogor egiten dit***". Horrez gain, Wasta-ko kokalekuko parte-hartzaile batek tratu txar, bortxa fisiko eta umiliazio gertaera bat aipatu zuen: auzokidearen senarra ikusi zuen emaztea, soilik barruko arroparekin jantzita, etxetik botatzen.

Horrez gain, emakume askok indarkeria emozionala eta hitzezkoa aipatu zuten. Emakume baten hitzetan, senarrak hainbeste mintzen zuen hitzez, non nahiago zuela joko balu. "***Jotzea eta fisikoki mintzea hobe da hitzez umiliatzea baino***", adierazi zuen. Senarrek eragindako indarkeria mota bat ere aipatzen zuten maiz: indarkeria ekonomikoa. Haien adierazpenen

arabera, indarkeria ekonomikoa zera zen: senarrek eskudirua edo dirua kentzea gauza jakinak erosteko. Emakumeek zioten senarrek nahi zutena besterik ezin zutela erosi. Parte-hartzaile gehienek esplizituki azaltzen zuten senarrendik jasandako indarkeria fisikoa, baina ez ziren hain esplizituak beste indarkeria mota batzuen intzidentziekin. Edonola ere, haien adierazpenei jarraiki, argi zegoen indarkeria fisikoa orokorra izan arren, bestelako indarkeria mota batzuk ere bazirela: hitzezkoa, emozionala, psikologikoa eta ekonomikoa.

D. *Ezkontza goiztiarrak*

Gainerako gaiekin ez bezala, parte-hartzaile guztiak ez ziren bat etorri ezkontza goiztiarrei zegokienean. Gehienek zioten neskato bat ezkontzeko adin orokorra 18 urte edo gehiago zela, baita 20 urte edo gehiago ere; hala ere, emakume askok zioten 18 urtetik behera ezkontzea onargarria zitzaiela. Shabriha-ko kokaleku informalean, emakume batek honakoa adierazi zuen: “Hiru alaba dauzkat, eta 14, 15, 16 urte zituztenean ezkondu nituen”. Eta honakoa gehitu zuen: “20 urtetik aurrera, inork ez ditu hartuko”. "Inork ez ditu hartuko" esaldia arabierazko esamolde baten itzulpen literala da, adierazteko inork ez duela beraiekin ezkondu nahiko inoiz gehiago. Bestalde, Maashouk-eko bilera komunitarioan, parte-hartzaile batek esan zuenean neskak 9. mailatik aurrera ezkondu behar zirela, beste parte-hartzaile bestelako iritzia adierazi zuen: “*Haram*¹³! *Hain gazte ezkondu orde, gehiago ikasi beharko lukete*”. Hortaz, aipatu bezala, nahiz eta emakume batzuek onartu gaztetan ezkondu behar ez zutela, beste batzuek onargarria zela uste zuten.

E. *Arau kulturalak*

Kokaleku informaletan gertatzen diren intzidentzia batzuk bultzatzen dituzten azpi-arauak sakonago ulertzeko, parte-hartzaileei galdetu zitzairen zer arau kultural eta sozial uste duten espero dela emakumeengandik. Parte-hartzaileek hainbat arau aipatu zituzten. Esaterako, neskek ezin dutela gaueko ordu txikietan kalean egon. Hori hainbat foku-taldetan aipatzen zen, eta bereziki azpimarratzen zen Qasemeye eta Sekke-n. Beste arau batzuk ziren: gurasoek ezagutzen

¹³"Haram" hitza "debeku" hitzaren itzulpen literala da; hala ere, kulturalki erabiltzen den hitza da, oso txarra den edozein gertakari deskribatzeko.

ez dituzten mutilekin ez ateratzea, edo senideak ez diren mutilekin ikusiak ez izatea. Jim Jim-en parte hartu zuen emakume batek zera esan zuen horri buruz: **"Ez dago adiskidetasunik mutil baten eta neska baten artean"**, adieraziz horrelako ekintza bat ez dagoela sozialki onartuta.

Oso maiz aipatutako beste arau bat, emakumeen ustez haienezako kaltegarria dena, aginte-sistema oso bati lotuta dago. Zehazki, parte-hartzaileek adierazi zuten patriarkatua jendarte osoa gidatzen duen sistema dela, non ekintza guztiak oinarritzen diren. Horrek, ondorioz, emakumeak aukerarik gabe uzten ditu edozein autoritate edo abantaila edukitzeko orduan, gizonak baitute nagusitasuna. Kanpalekuetan bizi diren familia guztien baitan dago sistema hau. Aitak edo senarrak azken hitza (eta bakarria) dauka familiako erabakietan, eta apenas jartzen zaio arretarik emaztearen iritzitari. Horren inguruan, parte-hartzaile batek bere esperientzia pertsonala kontatu zuen, eta honako hau adierazi zuen: **"Senarraren baimenik gabe, ez dut ezer egiteko baimenik. Ez dut baimenik nire lagunak bisitatzeko, ez dut baimenik nahi dudan janaria prestatzeko. Negar egiteko ere ez dut baimenik"**. Kokaleku batean, parte-hartzaile batek aipatu zuen batzuetan esaera erlijiosoak erabiltzen direla patriarkatua eta gizonen nagusitasuna justifikatzeko. Zehazki, esaldi bat aipatu zuen, **"gizonak emakumeen zaindariak dira"**, islamiar esaera baten —**"alrijal qawaamun ealaa alnisa"**— itzulpen literala. Bere hitzetan, zenbait gizonak gaizki erabiltzen dute esaldi hau, beren probetxurako, emazteak jipoitzeko eta beren menpe daudela ziurtatzeko, eta beste batzuek behar bezala ulertzen dute esaeraren esanahia, alegia, emazteak babestu eta maitatu behar dituztela.

Beste arau kulturaletako bat zera zen, lehengusuak elkarren artean ezkontzeko ohitura zegoela. Libanon ez da intzestutzat hartzen, eta lehengusuek elkarrekin ezkontzeko aukera dute; horren harira, emakume batek esan zuen horrek eragina duela erabakiak hartzeko orduan: **"Bi alaba ditut, ordaindik gazteak dira, eta senarrak beti esaten die beren lehengusuentzako izango direla"**. Adierazi zuen horrek kezkatu egiten zuela, ez baitzituen alabak sinesmen horien bidez hezi nahi, baina aitaren nahia hori zela.

Aipatutako beste arau bat, berriz, ezkon-bizitzaren biziraupena eta jarraikortasuna emazteari egozte da, haurrak heztea baita bere lehen eginkizuna (eta bakarria). Jim Jim-eko parte-hartzaile

batek esan zuen bere senarrak nahiago zuela hura etxean geratzea eta umeak heztea, lana aurkitzea eta lan egitea baino. **"Nire senarrak nahiago du ni etxean geratzea seme-alabak zaintzen"**, adierazi zuen. Beste emakume batek kontu honen beste alderdi bat aipatu zuen: senarrarengandik tratatu txarrak pairatzen zituen, eta gurasoen etxera itzultzea eta dibortziaz erabaki zuenean, gurasoek senarraren etxera itzultzera behartu zuten, harremana salba zezan, dibortzioa ez zutelako onartzen.

Beraz, nabarmena da arau kultural askok gogoz bultzatzen dutela kokalekuetan gertatzen den indarkeria. Ondorioz, indarkeriaren ziklo errepikakorra mantentzen laguntzen dute.

F. Laguntza-baliabideak indarkeriaren ostean

Indarkeriaren ostean, bizirik ateratakoek laguntza bilatzen duten ala ez eztabaidatu zen fokutaldeetan. Foku-talde guztietan aipatu zen bizirik ateratakoek laguntza eskatu edo norbaitekin gertatutakoaz hitz egin ohi dutela, baina ez beti haien familiarekin. Batzuetan ama, aita, edo senarra dira gertatutakoaz informatzen dituztenak; beste batzuetan, lagunak, auzokideak edo lehengusu-lehengusinak izaten dira pertsona erreferentzialak. Normalean, beldur dira familiak jakinaren gainean jartzeaz, errua haiei botatzea saihesteko, babestuak izan ordez. Beraz, bizirik ateratakoek nahiago dute lagundu eta ulertuko dituen norbaiti kontatu, eta horiek ez dira beti beren senideak.

G. Mutiko gazteen kontrako indarkeria

Indarkeria pairatzen duten emakume eta neskatoei buruzko kasuak aipatzeaz gain, hainbat indarkeria mota pairatzen zituzten mutiko gazteen kasuak ere aipatu ziren. Mutikoen erasotzaileak testuinguru ezberdinetako pertsonak ziren. Zenbaitetan jasotakoaren arabera, eskoletako irakasleak ziren. Kfarbadda-ko taldean, parte-hartzaile batek honakoa aipatu zuen: **"Nire haurra eskola berrian hasi zenean, istorioak kontatzen hasi zitzaidan, aurreko eskolako irakasleen indarkeria fisikoari buruzkoak"**. Beste batzuen arabera, erasotzaileak mutiko gazteez baliatzen ziren gizonak ziren. Jal El Baher-eko fokutaldean aipatu zen mutiko gazteen sexu-abusu asko gertatzen zirela, beraietaz baliatzen ziren eta esplotatzen zituzten gizonen aldetik. Aipatu zuten mutiko elbarriak erasotuak izateko arrisku berezia pairatzen zutela inguru horretan.

Gainera, maiz aipatzen zen mutiko gazteak beren senideek zein parekoek erasotzen zituztela. Izan ere, oso ohikoa da parekoek elkar abusatzea, eta gurasoek seme-alabak jotzea.

H. *Inpaktu ekonomikoa indarkeriarengan*

Foku-talde guztietan aipatu zen egoera ekonomikoaren ondorioz indarkeria areagotu dela. Parte-hartzaileak bat zetozen: pandemiaren ondorioz gizonak etxean denbora gehiago ematen zuten, eta beren diru-sarrerak gutxitu ahala, emazte eta senideekin bortitzago bihurtzen hasi ziren. Jal El Baheren, parte-hartzaileek hautematen zuten indarkeria-ziklo bat azaldu zuten. Aipatu zuten gizona etxean egonda, lanik egin gabe, tentsioa areagotzen zela haren eta emaztearen artean; ondorioz, gero eta erasokorragoak bihurtzen ziren biak. Senarrak emaztea erasotzen duenez, indarkeria hori seme-alabengan gauzatzen du emazteak. Beste foku-talde batean, aipatu zen hurrek, ziklo horren ondorioz, elkar jotzeaz gain, batzuetan hitzez erasotzen zituztela beren amak, horixe bera ikusten zutelako.

Aurkikuntza kuantitatiboak- Inkesta

Inkesta 137 parte-hartzailek bete zuten Shabriha, Eiteneye, Qasmeye, Wasta, Kfarbadda, Jal El Baher eta Maashouk diren 7 topaketetan. Lau partaideren datuak ezabatu egin ziren 18 urtetik gorako adinaren irizpideak ez betetzeagatik eta horrek, 133 parte-hartzaileekin utzi zuen azterketa. Bildu eta aztertu ziren elementuetan ez ziren daturik falta.

Parte-hartzaileen adinak 18 eta 75 artean zeuden, batez besteko adina 42 urtekoa izanda. Parte-hartzaileetatik hiru bakarrik gizonetakoak ziren eta gainerako 130 emakumetakoak. Nazionalitateei dagokionez,% 78,08 PRL ziren,% 15,32 PRS eta siriarrak; 6,5 libanoarrak.

Kultur arauetako bateragarritasunari dagokionez, datuak aztertuta, emaitzek erakutsi zuten laginaren% 47 oso ona dela GBVa sustatzen duten kultur arauetarekin, puntu guztien batez besteko puntuazioan 2 puntu baino gehiago lortu baitzituzten. Elementu zehatzei dagokionez, adostasun maila baxuena zuten bi elementuak honako hauek izan ziren: "sexua gizonetakoaren eskubidea da ezkontzean emaztearen nahia edozein dela ere" eta "jotzea aitak bere alabak diziplinatzeako modu onargarria da": % 54,7a ez dago ados lehenengoarekin eta% 60,6a ez daude ados bigarrenarekin. Bestalde, parte-hartzaileen% 51,5ak ados zegoen edo zertxobait ados zuten ezkontza mantentzeko ardura hartzen duten emakumeen arauetarekin.

GBVren intzidentziei dagokionez,% 81eko parte-hartzaile gehienek emakumeen aurkako indarkeriaren gertakarien berri izan dutela adierazi dute. Gehien jakinarazi den indarkeria mota indarkeria fisikoa izan da, gero emozionala, sexuala eta ekonomikoa; eta gutxien jakinarazi dena ahozko indarkeria izan da. Emakumeek indarkeria jasan ondoren laguntza eskatzen duten edo ez galdetuta,% 71,5ek baietz esan

zuen. Kasu horretan jendearen berri eman zutenak orduan familiako lagunak ziren. Erantzuna ezezkoa izan den kasuetarako, inhibitzaile nagusia beldurra izan da.

Emakumeen aurkako indarkeriaren pertzepzioari dagokionez, parte-hartzaileen% 51,8k erantzun du familia guztiek ez dutela emakumeen aurkako indarkeria desagokitzat jotzen. Gainera, aurkikuntza interesgarri bat da GBVrako ekarpenik berriena pobrezia dela. Halaber, parte-hartzaile batzuek "koinatuen bultzada" aipatu gabeko elementu bat bezala gehitu zuten. Azkenik, parte-hartzaileen% 90,5ak bere interesa adierazi zuen beren komunitatean LBB gaia lantzen duten saioetara joateko.

I. Eztabaida eta gomendioak

Ikerketa honek topaketen komunitatean GBV ulertzea du helburu. Datuek erakusten duten moduan, emaitzak desberdinak dira parte-hartzaileen eta topaketen artean, inkestan gertatzen den moduan; dena den, oso bateragarriak dira, foku taldeetan gertatzen den moduan. Hala ere, bi metodoak erabiliz, agerikoa da GBV gai larri eta kritikoa dela topaketetan bere forma desberdinetan. Emakume, neska gazte eta mutil gazte gisa jende askori eragiten diolako gertatzen da hori. Gainera, haien bizitza behar bezala hobetzea eragozten du eta eguneroko jarduerak normaltasunez egitea eragozten du. Hori arazo larritzat jotzeko beste arrazoi bat da faktore sozial eta ekonomiko anitzek eragina izatea da. Arestian aipatu bezala, egoera ekonomikoak itxuraz GBVren intzidentziak areagotu ditu. Hala ere, hori gehiago ikertu behar da.

Hori kontuan izanda, LHBaren arazoari aurre egin eta bizitza aldatzen duen ikuspegitik bideratuko lukeen ikerketa eta laguntza proiektu gehiago egin behar dira. Lehenik eta behin, gaia oso modu zehatzean ikertu behar da. Beste modu batera esanda, ikuspegi bat izan daiteke egoera aldakorrek GBVren gaian duten eragina ikertzea. Libano bezalako herrialde baten testuinguruan, faktore anitz asko har daitezke kontuan. Horietako batzuk COVID-19ren pandemiak GBVren gaian duen eragina da. Beste faktore bat izan daiteke egungo krisi ekonomikoaren eragina, lanerako aukerarik ez egotea edo topaketetan GBVn soldatak amortizatzea. Pobrezia GBVrako arrazoi dela jakinarazi denez, arazo hau gehiago ikertu behar da egoerari buruzko erantzun baliodunak eta fidagarriak emateko. Era berean, ikerketara hurbiltzeko metodo desberdinak erabili behar dira. Hau da, ikerketa gehiago gizonezkoen eta emakumezkoen inklusioan oinarritu beharko lirakeke emaitza adierazgarriak lortzeko; gaiari buruzko ikerketa gehienek egiten ez duten gauza. Gainera, PRL eta PRS komunitatean gai garrantzitsu bat aztertu beharko litzateke, hau da, hezkuntzak RVBren intzidentziaren prebalentzia aldatzeko eta hori ulertzeko duen papera.

Jorratu beharreko gaiaren beste atal bat egilea da. Egileak egiten ari diren moduan jokatzera eraman dituzten arrazoiak aztertu behar dira eta ahal bada aldatu behar dira. Are gehiago, etxeko indarkeriaren kasuetan indarkeria ziklo bat salatu zen, horretarako laguntzaile nagusia pobrezia zela esanda. Lehenik eta behin, gai hau gehiago ikertu daiteke. Bigarrenik, gizonezkoen zuzendutako proiektu gehiago eskaini beharko litzateke, haien behar ekonomiko, finantzario eta psikosozialak kontuan hartzeko. Halako ekimen bat egoteak gizonei aurretik eman ez dieten aukera emango die.

Zalantzarik gabe, eta aipatutakoaz gain, laguntza, bere forma desberdinetan, laguntza soziala, ekonomikoa, psikologikoa, emozionala eta osasuntsua eman behar zaie indarkeriaren biziraupenei;

neska gazteak, mutil gazteak edo emakumeei. Zerbitzuetara sarbide erraza eta doakoa izatea beharrezkoa da laguntza bilatzeko eta behar duten laguntza lortzeko aukera ematen bait die. BGBren biktima eta bizirik irauten dutenek beti laguntza jasan behar dute.